

BIZKAIKO IKURDI BARRIARI ZENTZUZKO KRITIKA


Bizkaiko Batzar Nagusiak Bizkaiko ikurdia harriztatu eta aldatu ebanetik hiru urte izango dira abenduan. Hain zuzen ere, 1986eko abenduaren 15ean izandako Batzar Nagusian artu zan Bizkaiko ikurdia aldatzeko erabagi garrantzitsua.

Naiz eta, historian hiru urte, ez izan epe nahikoa jazoerak behar diran neurrian epaitzeko, halan ere, hiru urtek nahiko ikuspegi itxurazkoa damoskue, Bizkaiko ikurdiari buruz ohar kritiko batzuk aurkezteko.

B. Ikurdia Bizkaiko Batzar Nagusiko eztabaidan

Komunikabideetan nahiko sarri ikusi ta entzun daik eguz gure politikarien maixutasuna eta hitz jariotasuna parlamentu eta antzeko batzarretan. Badagoz banaka batzuk parlamentari jokoan eta zeregiñean trebetasuna agertzen dabenak, baiña beste parlamentari batzuengan logika zorrotz eza, eta hizlari errekurtsio falta, nahiko nabari agertzen dira.

Darabilgun gai hau eztabaidatu zancan akats honeek berez-berez ikusten dira. Alderdien ordezkarien artean matrakea ta gataska latza sortzeko gaia zan, eta hori normaltzat jotzen dogu:



Gipuzkoako ikurdi zaharra

Azken baten, Bizkaiaren identitatearen sinboloak eta ezau-garriak ziralako jokoan: ikurriña, ikurdia, izena bera. Gai politikoa beraz, eta horrez gain, historia, heraldika eta etnografia zientziak ikututzen ebana, hau da: goi politikako gaia, goi maillako eztabaida sortzeko aproposa.

Nahiko abaleginduta ere, ez dot izan aukerarik artxi-boak eta Batzar Nagusiko agiriak konsultatzeko, baiña komunikabideetan agerturiko laburpenetan, goi maillako politika ta parlamentari joko bikaiña baiño, ezak eta urritasunak nabariagoak dira. Junteru hizlarien ahotan historia

aipamen gehiago, heraldika jakintza garbiago, etnografia zeaztasun ugariago eskertuko genduke, politikarian, alderdikieran edo irri trauksilean jausi barik.

Esandakoagaitik, Bizkaiko Batzar Nagusiko junteruen iritziak ez ditugu ekarriko, eta historiaren eta heraldikaren laguntzaz baliatuko gara, Bizkaiko Ikurdi Barriari buruz zertzelada kritiko batzuk emoteko.

1986 Aurreko Bizkaiko Ikurdia


Erakundeak, ikurdiak, oiturak, tradizioan oinarritzen diralako mantendu beharrekoak dirala, entzuten da sarritan. Baiña argudio hau ez da funtsezkoa, eta beste barik ezin daitekio egokitu ikurdiari.

Ikurdiak egoera historiko baten sortutako sinboloak ditugu. Egoera historiko baten honelako edo horrelako ekonomia, politi-

ka, gizarte interesak dagoz jokoan, ikurdi bat sortzerakoan: Guda edo pake giroa, jauntxokeria edo menpekeria, oligarkia edo demokrazia, gizarte estratifikatua edo irekia, politika egoera etab. ispilluan bezala agertzen dira ikurdian. Baldintza guzti horreek eta gehiago gogoan izatea komeni da, ikurdi bat aztertzerakoan. Ikurdiak, beraz, aldatu daitezke eta aldatu beharra dago talde baten edo herri baten sentipenak, historia edo nortasuna iraintzen edo minberatzten ditue-nean.

Horixe zan Gipuzkoako ikurdiaz jazoten zana: guztizarbuigarri ta lotsagarriak ziran Gipuzkoako ikurdiaren kañoiak Nabarra eta euskal sentikortasunera-ko, eta zentzu eta iritzi jatorraz

1976ko uztailaren 21ean kañoi irudiak Gipuzkoako ikurditik kentzea erabagi eban Gipuzkoako Aldundiak.



Gipuzkoako ikurdi birmoldatua, kañoi izkillurik gabe

Historiak gogoratzen deuskunez, 1513. urtean, Kastillan erregina zan Juanak, Gipuzkoak Belate-ko gudan, napartarren aurka Kastillari egindako laguntzagaitik, napartarrei kendutako 12 kañoi, Gipuzkoako ikurdian -omen sinbolo bezala- jartzea erabagi eban.


1936an eta gero egin ziran ahalegiñak alperrikakoak izan ziran, ahalik eta demokrazia heldu arte; hain zuzen ere 1979.

urtean kañoi horreek deuseztatuak izan ziran betirako Gipuzkoa-ko ikurditik.

Bizkaiko ikurdi zaharra neobarroko estilokoa da. Atsegin edo ez atsegin izan estilo hau, estilo artistikoa bera baiño, sinbolojia da eztabaidagarriagoa. Bizkaiko Aldundiaren akordioan hurrengo deskribapena emoten da:

«Zidarrezko landa, bere gunean haritz orlegia, enbor zuzena ta adabegi bakoiz sustraitua, hau da: sustraiak lur azalean, adartsua ta igaliduna, urre ezkurak hostartean agertzen dituala. Beheko hegalean, haritz enborra heuren gorputzaz zeharkatuz, otso baltz bi agertuko dira, ibili itxuran, bat bestearen gainean, ikurdiaren ezker

eskumara, bildots gizen zuriak, bizkar erditik arrapatuta dituela, euren ahoetatik dindilizka ta odola dariola, burua bistan eta soin adarrak beherantz dabezela. Ikurdiaren ertzegala urrezkoa izango da, bost leoi gorri aldapa jarrean, simetrikoki kokatuak: Bi goi hegalean, bana ertzegaleko erdian eta hostgarrena behal-deko puntan.



Lehenagoko Bizkaiko ikurdia leoi eta otsoekaz

urtengo daben beste hiru ertzak, urrezkoak izango dira. Bere burua ikurdiaren goi hegaletik agertzen dauan leoiak besarkatuko

Ikurdiaren goi hegalean orain arte egoan Bizkaia inskripzioa desagertuz. Gurutzearen zati bat haritz enborrak berak osotuko dau, eta adaburutik landarara


dau ikurdi guztia». (1899ko azaroaren 24an Bizkaiko Diputazioaren akordioa. Akordio honen euskerazko itzulpenik ez dalako aurkitu, idazlantxo honen egilleak euskeratua).

Deskribapen zeatz honetan dakusgunez, alde batetik, animalien presentzia ugariegia (hamar: leoi, otso ta bildotsen artean). Baiña pisti honeek ez dira arean ere enigmatikoak edo kanpokoak Bizkaia eskualdearen historian eta tradizioan.

Leoiak: Konbentzionalki, basoko animalien jauna izatea dagokie pizti honei. Bizkaia, Erdi Aroan, jaurerria izan zan, eta deitura hau bere nortasunaren erakusle-tzat emon daikegu. Baiña batez ere errege errotik datorkio izen hori. Jakiña danez, Bizkaiko jaun batzuk errege laiñukoak ziran edo erregeen semealabekaz aidekotuak, hortik leoi presentzia Bizkaiko ikurdian.

Azkenengo ikurdian leoi horreek sei ziran, bat ikurdia kanpoaldeketik inguratzen ebana, benetan antiestetikoa. Beste bost leoiak, lehenagoko epealdi baten Bizkaia «nuclear» gunean izandako bost ibarren lekuko. Honeek ere posizio arruan, malda gora egoeran.

Otso biak, bildotsekaz: Haro, aldi baten Bizkaiko jaunak ziran, deitura eta abizen ospetsua Bizkaian ezeze, Kastillan, Aragonen



Aldi baten Haro familiaren ikurdia

eta Nabarran ere. Bizkaiko jaunak, Kastillan erregearen urrengo aginpidea eukerak, kondestable ta antzeko erantzukizunak zituela. Argote de Molina'ren ustez otso biak, Lope de Haro, latinetik «lupus» (otso) datorren izenean dauke jatorria: «Por alusión del nombre de Lope, llamado en latín, Lupus (lobo), usado por los primeros Señores».

Otsoek ahoetatik dindilizka dituen bildotsak Argote de Molina historialari beraren iritziz, mairuen odolaren alusio bat da: Navas de Tolosa gudan, Diego Lopez de Harok mairuen aurka burukatu ei eban, eta han ixuritako odolaren alusioa bildots odolduak izango litzatekez. Beste aldetik, eraso-zale ta burukalari ziran aundiki honei, gehienetan maltzurkeriaz eta makiabelismoaz jokatu, ezin hobeto dagokie otso arrapatzaile ta triskatzaille irudia.

Ikurdiaren orlegizko haritza, ta hiru ertz urrezko gurutzea: Sabino Aranaren esanetan eta gogoan, independentziaren eta sinismenaren sinboloak eta margoak ditugu, naiz ta haritz orlegia, jadanik Erdi Aroko Bizkaiko ikurdian aurkitu.


Bizkaiko Ikurdi Barria

Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1986.ko abenduaren 15eko batzaraldian onartu eban ikurdiak, honelako bereiztasunak ditu:

«Zidarrezko landan, adabegi bako enbor zuzen eta adaburu orlegizko haritza lur-ganean, lur-enborrak sienamargoz agertzen dirala; adaburuan gurutzearen hiru ertz zuriak eta honetara banandutako zortzi astalkai gorrigaz urre-zahar margozko ertzegala: hiru goi-aldean beste hiru behealdean eta beste biak aldamenerdian. Haritz-orrizko ustai orlegiak inguratzen dau ikurdia».

(1986ko abenduaren 27ko BJBOn eranskiña).

Akordio hau, oposizioko alderdien laguntza barik baieztatu zan; batik-bat oposizioko alderdien ikuspuntuak eta zuzenketak onartuak ez ziralako izan eztabaidetan. Bizkaiko Batzar Nagusian nausitasuna eukala jakitun egoan EAJ-PNV, eta horregaitik, beste



Bizkaiko ikurdi barria, leoi eta otsoak kendu ondoren

alderdiei amore emon gabe, Sabino Aranak asmatutako Bizkaiko ikurdia aprobatu eban.

Ikurdi barri honetan, irudian eta textuan ikusi daikegunez, irudi ta sinbolo batzuk kendu, beste batzuk aldatu, eta beste hirugarren batzuk barritzat emon daikuguz:

a) Kendutako irudiak: Ikurdia kanpoaldekik besarkatzen eban leoia, eta hegaletako beste bost leoiak. Leoi irudiak bere sinbologia, esanahia, tipikismoa

eukien, hala ere posizio antiestetikoa baiño, arrarua, ez egokia aurkezten eben gehienak. Otso biak bildotsak ahoan zituela: Haro sendiaren, garai baten Bizkaiko jaunen, oroipena ziran. Familia hontako pertsonai batzuk gizon zintzoak bezala agertzen dira kronika idazkietan, beste pertsonai batzuk maltzurak eta gaiztoak legez, baiña ia beti burrukari ta erosotzaille.

b) Zerbait aldatutako irudiak: Haritza bera (lehenagoko ikurdian «sustraiak lur azalean, adartsua, igaliduna, urre ezkurak ostartean»), ikurdi barrian: «Adabegi bako enbor zuzen eta adaburu orlegizko haritza lur-ganean, lur enborrak siena margoz agertzen dirala». Dakusgunez: Haritzak, ikurdi barrian, ez dauka ez adabegirik, ez igalirik, ez urre ezkurrik; sustraiak ere tarte zabalagoan lekutatzen dira. Gurutzea bera urrezkoa lehenagokoan, «ertz zurriak» ikurdi barrian.

d) Irudi barriak: Ertzegaleko bost leoien ordeztortzi «astalki» gorri ipiñi dira leku berean. Astalkai horreek, Sabino Aranaren

iritzian, Ander Deunaren gurutz txikiak dira, Bizkai guneko antzi-
ñako zazpi-zortzi ibarren erakusgarriak, hain zuzen ere, ibar
bakoitzaren nortasunaren eta buru-jabetasunaren ezaugarriak.

«Haritz orrizko ustai orlegiak» ere, irudi barriak dira. Ikurdia
besarkatzen eban leoia kentzerakoan, zerbaiten hutsunea egoala
esan leikean. Horregaitik, beti sinbologia ta margoa jagonez, eta
apaingarri bezala jarri da «haritz orrizko ustai orlegia». Honela:
orlegizko haritza ikurdi barruan, haritz orrizko ustai orlegiak
ikurdi inguruan; haritzak eta orlegiak joko sinbolikoa egiten dabe-
la. Ikurdi barri honetan, beraz, geratzen dira finkaturik Euskalerrri-
ko eskualde baten eskubide historikoen sinbolo bereziak, desme-
morizatuena, desnaturalizatuena eta ezjakiñen lotsarako ta abertza-
leen oroipenerako.

Ikurdia eta Heraldika. Azken ikuspuntu kritikoak

Azpinarragarri diran azken zertzeladak heraldika aldetik da-
torkiguz. Perpausa baten esateko, Bizkaiko ikurdi barri honetan
heraldika arauak ez dira zeatz-zeatz betetzen:

a) Heraldika lege garrantzitsu batek zera hau adierazten dau:
Ikurdietan metalak ez dau metalak ikutu behar. Ikurdi honetan:
zidarrezko landa eta urre-zahar margozko ertzegala bata bestea
ikututzen eta mugatzen jarri dira.

b) Heraldika arau bera zapuztutzen da hurrengo konbinaketa
honetan: «zidarrezko landa» eta «adaburuko gurutzearen hiru ertz
zuriak» alkar joka lekutu dira, zidarrezko landa eta gurutzearen
hiru ertz zuriak, heraldikan alkar nahasgarri dira, zidarra ta zuria,
margo bardiña, bat bera, diralako heraldikan.

Utsune nabariak? Jakin gabe, ta uste barik egindakoak? Ala
heraldika arauak jakiniez, baiña beste sinbologia balore batzuk
lortu nahirik asmatu ta diseñatu ete da Bizkaiko ikurdi barri hau?

Oraingo Bizkaiko ikurdia, Sabino Aranak asmatutako ta azal-
dutako ikurdi bera da, baiña ez zeaztasun guztietan. Adibidez:
Sabino Aranak, zidarrezko landa baiña, landa gorria eukan ego-

kiagotzat. Beste alde: Ikurdi barria inguratzen dauan haritz orrizko ustai orlegia ez neuke ziurtatuko Sabino Aranaren gogokoa ta asmaturikoa danik.

Antiestetiko baiño eztabaidagarri zan ikurdi inguruko leioa kentzerakoan, zeozer ordezkotzat eta edergarri legeztartarantz, ikusmenerako atsegin, sinbolojiarako egokia ta heraldika aldetik iguingarri ez dan haritz orrizko ustai orlegia aukeratu dabe, nire iritzi apalean egoki ta bikain gertzen dalarik.

Eroapenez jarraitu deuskun irakurle zoliak epai alderdikeria bakoaz aztertu dagiala Bizkaiko ikurdiaren birmoldaketa hau. Dana dala, egoki asmatua ta lortua izan, edo ez izan, beti jatorrizko hutsune nabari bat izango dau: abertzale alderdi danen edo gehien kontzentzu eza. Alderdi abertzaleak, bardin «bizkaitarrak» izanik, zergaitik billatu ez alkar-aditzea ta kontzentzua gure herriaren identidadearen sinboloetan?

Jose Ramon Iturriaga